

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, MAÑUETAKO UDALAREN 2016-KO FISKALIZAZIOARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den martxoaren 22an Mañuetako Udalaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2016ko ekitaldiari dagokiona.

2016ko ekitaldiko **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz ez duen ondorioztatzerik izan Egoeraren Balantzeko ibilgetu materialaren kontuaren gaineke saldoaren zuzentasunari buruz, 1,2 milioi euro egin dituen.

HKEEk fiskalizazio-gai izan duen Kontu Orokorraren egoera finantzarioa aztertu du. Eragiketa arrunten egitura ez da aztertutako aldiari aldatu eta 2016an sarrera arrunten % 25eko aurrezki gordina sortu du. Zorpetzea eta Geldikina antzekoak ziren aztergai izan dugun aldiaren hasieran, baina Geldikinak hobera egin du sortutako aurrezkoaren ondorioz eta aldiz, zorpetzeak behera egin du mailegurik kontratatu ez delako; horren guztiaren ondorioz, 2016ko sarrera arrunten % 27 eta % 70 egiten dute, hurrenez hurren.

Halaber, txostenak ondorioztatu du Udalaren kontu-hartzaileak jaulkitako txostenaren arabera, 2016an **aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun eta gastuaren araua bete dela**.

Udalak **zuzentasunez bete du** 2016ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen **lege arautegia**.